# AGURAINGO JAIAK 2023 AZALA HAUTATZEKO LEHIAKETA
# CONCURSO DE PORTADAS FIESTAS DE AGURAIN 2023

Aguraingo Udalak 2023ko Aguraingo Jaiak iragarriko dituen kartel-azala hautatzeko lehiaketa deitu egin du, ondoko oinarrien arabera:

Gehienez **bi lan** aurkeztu ahal izango ditu egile bakoitzak.

**Neurria**: 21X21 cm. Luma-kartoi edo kartoi mehearen gainean aurkeztu beharko da eta kristalik gabe.

**Kolorea eta teknika**: aukerakoa

**Aurkezteko epea**: 2023ko uztailaren 21a arte, 14:30etara arte.

**Aurkezteko lekua**: Aguraingo Udaleko Erregistroa.

**Informaziorako telefonoa**: 945.300155

**Identifikazioa**: lanok lelopean aurkeztuko dira eta egilearen sinadurarik gabe. Lelo bera eramango duen gutunazal itxian egilearen identifikazioa baimentzen duten datuak sartu beharko dira, telefono zenbakia nahiz Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia barne direla.

**Saria**: Lehiaketaren irabazleak sari modura **200 euro** jasoko ditu. Lanek kalitate tekniko nahikorik izan ezean, saririk ez ematea erabaki daiteke. Kasu horretan, epaimahaiak artista edo bulego bati luza diezaioke lana egiteko agindua.

Kartel-azala teknikoki gauzatu orduko koloreñabarduren moldaketaren bat egin behar izatekotan, epaimahaiak aipatu moldaketa ezar dezake, egileari aldez aurretik aholku eskatuz eta harekin elkarlanean. Irabazle suertatu eta kartel-azala ordenagailuz burutuz gero, lana euskarri informatikoan luzatu beharko da (CDan) eta inprimatuko den neurriekin (21 zm. X 21 zm.).

**Epaimahaia**: Aguraingo Kultur Batzordeak izendatuko du. Lehiaketan parte hartzen dutenek ezin izango dute epaimahaikide izan. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da.

Irabazle suertatzen diren kartel-azalak Aguraingo Udalaren jabegora pasatuko dira, bikoizketari, banaketari nahiz jendaurreko komunikazioari dagokionez aipatu kartel-azalen ustiapen-eskubideak egileen lagapentzat joz; betiere, erabateko izaeraz eta Udal honen alde. Lanak on-line ematea nahiz igortzea baita Internet bezalako sare digital elkarreragilen bidez eskueran jartzea ere barne sartzen dira beren -beregi.

Lehiaketara aurkeztutako baina saritu gabeko jatorrizko lanak 2023ko abuztuaren 30 arte jaso ahal izango dira Aguraingo Udaletxean, utzi ziren leku berean, eta behin epe hori agortuta, Aguraingo Udalak nahi bezala baliatu ahal izango ditu erretiratu ez diren lanak.

Kartelaren testua honakoa izango da: **Aguraingo Jaiak 2023**.

El Ayuntamiento de Agurain, convoca Concurso a fin de elegir el cartel-portada anunciador de las Fiestas de Agurain 2023, con arreglo a las siguientes bases:

Podrán presentarse hasta un máximo de **dos** obras por autor.

**Tamaño**: 21X21 cm. Deberá ir montado sobre cartón pluma o cartulina, y sin cristal.

**Color y técnica**: Libre

**Plazo de presentación**: hasta el día 21 de julio de 2023, a las 14:30 horas.

**Lugar de entrega**: Registro del Ayuntamiento de Agurain.

**Teléfono de información**: 945.300155

**Identificación**: los trabajos serán presentados bajo lema y sin firma del autor. En sobre cerrado y bajo el mismo lema deberán incluirse los datos para la identificación del autor que incluya número de teléfono y fotocopia del Documento Nacional de Identidad.

**Premio**: el ganador del Concurso percibirá como premio **200 euros**. Podrá declararse desierto en caso de que las obras no tuvieran la suficiente calidad técnica, en cuyo supuesto el Jurado podrá encargarlo a un artista o estudio.

Si la ejecución técnica del cartel-portada requiriese alguna modificación de las tonalidades para su mejor impresión, el Jurado podrá imponer dicha variación, previa consulta y en colaboración con su autor. En el caso de resultar ganador y de realizarse el cartel-portada con ordenador, se deberá facilitar en soporte informático (CD) de la obra al tamaño en el que se imprimirá (21cmX21 cm).

**Jurado**: Será el designado por la Comisión de Cultura de Agurain. No podrán formar parte del jurado aquellas personas que tomen parte del Concurso. El fallo del Jurado será inapelable.

El cartel-portada ganadores, pasarán a ser propiedad del Ayuntamiento de Agurain, considerándose cedidos por los autores los derechos de explotación sobre dichos carteles-portadas en las modalidades de reproducción, distribución y comunicación públicas; todo ello con carácter exclusivo y a favor de este Ayuntamiento. Queda expresamente incluida la emisión y transmisión on-line de las obras y su puesta a disposición a través de las redes digitales interactivas, tipo Internet.

Los originales presentados a concurso y no premiados podrán retirarse del Ayuntamiento de Agurain donde fueron depositados hasta el 30 de agosto de 2023 y, transcurrida esta fecha, el Ayuntamiento de Agurain podrá disponer libremente de los no retirados.

El texto correspondiente al cartel será: **Aguraingo Jaiak 2023.**



AGURAINgo UDALA

KULTURAGURAIN
batzen gaituena